



# Andikoagoitia (-a) etxebizitza

Aldacrak: Estebanena

Ahozkoa: Andikoagóitia / Estébanekue



43° 11' 26"

2° 35' 12"

Berriz Iruditan / T. Angoitia

“... la casería denominada Andiconagoitia... sita en la Co-fradía de Andiconona de la anteiglesia de Berriz, se compone de dos viviendas con un piso bajo y otro alto con sus zaguanes, cuadras y pajares, ocupando con inclusión de un retazo de huerta doscientos cinco y medio estados...”

DJE 6/228 or. (1897)

Bizitza biko baserri honek *Andikoaparizio* (**Ikus Andikoaparizio**) baserriaren ondoan kokatzen da, eta jatorrian ugazaba berarenak ziren eraikin biak. 1729ko dokumentuetan, *Andiconona Goitia* (BAHP, A486/32) baserriaren berri dugu, eta urte batzuk geroago, Bizkaiko su-errodetan ere aurkituko dugu, forma bera mantenduta: *Andiconona Goitia* (1745). XVIII. mende amaieran, lehendabizikoz *Andiconagoitia Estebanena* (1796, BAHP, A82/7) moduan agertzen da. Hortik aurrera, aldaera desberdinak jasoko dira dokumentazioan, eta batzuetan *Estebanena* (1825, PE/1825), *Estebanecoa* (1863, DJE, 1/ 39. or.) eta *Andiconagoitia Estebania* (1905, BUA, 40) aurkitzen dugun bitartean, beste batzuetan *Andicóna-góitia* (1859, BUA, Nmcr) eta *Andiconona-Goitia* (1910, BUA, RU) gisa dokumentatzen da. XX. mendearen bigarren erdian, aldiz, *Estebanecua* forma aurkituko dugu, ahozko erabileraren ondoriorik (adibidez, 1967ko Udal-errodan). Esan bezala, berrihtarren artean gehien erabiltzen diren formak *Andikoagóitia* eta *Estébanekue* dira.

Baserri etxe handia, bizitza bikoa. XVI. mendeko etxearen zati garrantzitsuak gordetzen ditu, kalitate oneko silarrickin egindako hormek edo hegi molduratua daukan fatxada nagusiko leihoak adierazi moduan. Alde honetan arku eder batek markatzen du erdia eta berau antolatzen lagundu. Izan ere, leihoak ez ditu oso era ordenatuan zabaldua, arkuaren gaineko biak izan ezik, eta ganbaran zurezko balkoia dauka. Beste askotan gertatzen den eran, Errenazimenduko etxea handitu egin zuten eta XVIII. mende bukaeran fatxada berria atondu arku ederrarekin, eta beste gorputz bat gehitu aldamenean. Harlangaitza erabili bazuten ere, kalitate onekoa izan zen, kantil eta baoen harlanduzko ertzak bezala. XX. mendeko 30. hamarkadan ere berriro itxuratu zuten. Teilatua isuri bikoa dauka.